Japoniako zineko zuzendari bikaina eta XX. mendeko zinegintzako pertsona ospetsu handienetakoa izandako Akira Kurosawaren [1910-1998] jaiotzaren mendeurrena dela eta, AlhóndigaBilbaok zinegileen maisu honen izaera konplexu bezain ñabartsua eman nahi izan du jakitera, estatu-mailan haren *storyboardak* lehen aldiz aurkeztuko dituen erakusketaren bitartez.

Bere marrazkiak trazu-askatasun handikoak dira, eta indarrez zein kolorez beteta daude. Euren bidez, Akira Kurosawak bere filmetako eszenak irudikatzen zituen, eta paperetik bertatik ematen zien bizia. Bere lanetan agertzen diren aipamen piktoriko eta literarioen munduan oinarrituta, erakusketak zinegilearen lanetara egindako hurbilketa berritzailea proposatzen digu: *storyboardetik* filmetako pasarteen proiektziora, bere zinegintzako kartel originaletatik *Ran* filmeko «Oscar saridun» jantzieta, bere zinegintzatik bere lanak miresten dituzten zuzendarien zinegintzara, Francis Ford Coppolatik George Lucasera, Martin Scorsesetik Jonnie Tora.

«Japoniako zineko enperadoreari» eskainitako omenaldia da, eta Josep Maria Caparrósek komisariatutako eta AlhóndigaBilbaok HoriPro, Inc. konpainiaren laguntzaz eta Japan Foundation zein asia etxearen eta Infiniti zentruaren babesaz ekoiztutako erakusketa bakarra 2010eko Kurosawa Urtearen esparruan eskainiko da. Horrez gain, hitzaldiak, ikastaroak eta tailerrak ere egongo dira, baita Akira Kurosawaren filmak ikusteko eta bere lanek beste zuzendari batzuen artean izan duten eragina ezagutzeko zikloa ere, askorentzat maisua zen-eta.

Samuraiaren begirada: Akira Kurosawaren marrazkiak

Akira Kurosawa XI. mendean sortutako samurai-familia bateko kidea zen. Bere aita instruktore militarra zen, eta diziplinaren zentzua zein Japoniako historiaren eta kultura tradizionalaren ezagutza irakatsi zizkion, baina, aldi berean, mendebaldeko zinearekiko grina ere helarazi zion.

Kurosawaren zine-ibilbidea une historiko zailen hasi zen: Europa Bigarren Mundu Gerran zegoen sartuta eta Japonia militaristak izpiritu nazionalista goresten zuen, modernizatzeko ahalgina egiten zuen bitartean. Luzaroan, Japonian, Kurosawaren zinea mendebaldarra zela esan zuten, eta, mendebaldean, ordea, Japoniako zine nazionaleko enperadorea izango balitz bezala hartzen zuten. Dena dela, samurai moderno honen begirada askoz ere sakonagoa eta kontrajarriagoa da, bere zinean japoniarrek euren buruaz duten irudia eta mendebaldeak Japoniaz duen irudia jartzen dituelako kolokan.

Kurosawak margolaria izan nahi izan zuen, eta, zinea ezagutu zuenean, «pintura betiko ahaztea» erabaki zuen. Lehen grina handi horren ondorioz, irudi piktorikoko baliabideetan oinarritutako zinea sortu zen: argia, kolorea, kontrastea, testura, konposizioa, perspektiba eta giroak.

Kurosawarentzat, zinea adierazpide anitza da, eta bere egiturak antzekotasun handiak ditu eszenak aurretiaz egituratzen dituzten lehen marrazkiez hasi eta, amaieran, edizioan nahiz muntaketan egituratzen den testuaren antolaerarekin.

«Storyboardak marraztean, gauza asko ditut buruan: enkoadraketa, pertsonaien psikologia eta emozioak, euren mugimenduak, mugimendu horiek filmatzeko kamera-angelu egokia, argiak, jantziak eta osagarriak [...] Aldez aurretik elementu horiei guztiei buruz zehatz-mehatz hausnartu ez badut, ezin dut eszena marraztu. Dena dela, zehatzagoa izango litzateke esatea gauza horietan pentsatzeko marrazten ditudala storyboardak. Hartara, filmeko eszena bakoitzaren irudia sortu, gauzatu eta irudikatzen dut, argi eta garbi ikusi baino lehen. Une hori iritsi arte, ez naiz filmatzen hasten.» Akira Kurosawa.

Akira Kurosawak zinearen historiako filmografia konplexu eta interesgarrienetakoa sortu zuen. Bere lan oparoan, edukien eta adierazpideen arteko oreka fin-fina da; bere historia japoniarrak bere esperientzia pertsonalean nahiz literaturan

daude oinarrituta; eta era guztietako generoak [abentura-zinea, txanbarak, melodramak, *jidai-gekiak*, *thrillerra*, zine beltza eta zine errealistaren nahiz zine sozialaren formak] landu zituen zinean, beste arte batzuk [pintura, literatura eta musika] eta beste zinematografia batzuk aipatzen ditu sarritan.

Gure herrialdean, lehen aldiz erakutsiko dira honako film hauetako *storyboard* originalak: *Kagemusha, gerlariaren itzala* [1980]; *Ran* [1985]; *Akira Kurosawaren ametsak* [1990]; *Abuztuko rap-sodia* [1991]; *Itxaron apur batean* [1993]; eta *Begira dugun itsasoa* [2002]. Era berean, honako hauexek ere egongo dira ikusgai: film horietako pasarte hautatuak, *Ran* filmean erabilitako jantzi originalak (eurei esker, Jantzien Diseinu Onenaren Oscar saria lortu zuen 1985ean) eta bere zinegintzako hogeita zazpi kartel original.

Marrazkien irudi finkotik bere filmetako mugimenduzko irudira, *Samuraiaren begirada* erakusketak Akira Kurosawaren lanera egindako hurbilketa berritzailea proposatzen digu. Horretarako, bere kontakizun zinematografikoko erreferente kulturalak nabarmentzen dira, baita ikus-entzuzko lan garaikide askotan izan duen eragina ere: kaligrafia eta grabatu japoniarrak [Hokusai], XX. mendearen hasierako abangoardia piktoriko europarrak [Van Gogh, Kokoschka, Gauguin], noh antzerkiko lan japoniarrak, Shakespeareren drama, Tolstoiren eleberria, William Harten western mutuak, John Ford, *Samurái 7* anime seriea, Jim Jarmuschen *Ghost Dog*, Georges Lucasen *La guerra de las galaxias* eta Tarantinoren *Kill Bill*.

Akira Kurosawaren storyboardak

Zinea baino lehen, Akira Kurosawaren gaztetako bokazioa pintura izan zenez, irudi piktorikoa funtsezko erreferentea da bere kontzepzio zinematografikoan.

Kurosawaren esanetan, zineak «literatura eta antzerki arloko ezaugarriak ditu, baita alde filosofikoa, pinturaren zein eskulturaren berezitasunak eta musikako elementuak ere». (*Autobiografía [o algo parecido]*, Fundamentos, Madrid, 1990). Adierazpide anitza da, eta, bertan, beste hainbat arte hartzen dira kontuan. Izan ere, eszenak aurretiaz egituratzen dituzten lehen marrazkiez hasi eta, amaieran, edizioan nahiz muntaketan atontzen den egitura dauka.

Balio artistiko eztabaida ezinezko lanak dira, zinegilearen egikerari buruz ematen duten lekotasunetik haratago. Alhóndiga Bilbaon, estatu-mailan lehen aldiz egongo dira ikusgai zuzendariaren



Kagemusha, gerlariaren itzala [Kagemusha], 1980

XVI. mendeko guda feudalek suntsitutako Japonian, heriotza-zigorra jaso zuen lapur txiki bat indultatu zuten klan aurkarien aurkako borrokan Takedatarren liderra zen Shingen printzearekin zeukan antzekotasun fisiko handiaren ondorioz. Handik aurrera, beraz, haren bikoitza [kagemusha] izan zen batailetan. Azkenean, ordea, Shingen hil egin zenez, Kagemushak bere nortasuna alde batera utzi eta behin betiko izan behar izan zen Takeda printzea.

Filmaren izenburuan bertan adierazi bezala, «itzalaren» ikuspegitik parte hartuko dugu historia epikoan eta ez benetako heroien ikuspuntutik. «Bikoitza» nortasunari eta botereari buruzko gogo-jardun filosofikoko protagonista izango da, hain zuzen ere. Kurosawak zenbait estudiotara eraman zuen gidoia, baina ez zuen arrakastarik izan. «Irudiak pantailaratzeko aukerarik eduki ez arren, gutxienez jendeak ikustea nahi nuela pentsatu nuen. Horrela, bada, marraztea bururatu zitzaidan» [Akira Kurosawa].

Storyboard honetan, ageri-agerikoa da Kurosawak Azuchi Momoyama epealdiko [1568-1603] Japoniako estetika sofistikatua eta mendebaldeko artearen historia ondo baino hobeto ezagutzen zituela: Italiako Behe Errenazimenduko batailen pinturak, simbolismoko eszena onirikoak eta abangoardietako surrealismoa. Filmeko funtsezko une batean, Kagemusharen ametsa amesgaizto bihurtzen denean, birsortutako giro onirikoak zenbait margolari espresionistaren estiloa dakarkigu gogora: Oskar Kokoschka, Chaim Soutine eta Emile Nolde.

storyboard originalak. Marrazki horietan, gainera, eszenako elementu materialak eta enkoadraketa ez ezik, pertsonaien psikologia eta emozioak ere azaltzen dira.

Bere lan zinematografikoaren balio artistikoa onetsita, Kurosawak apaltasunez eta ironiaz hausnartzen du «pinturara» itzultzean lortutako arrakastari buruz:

«Nire storyboardetako marrazkiak artea ote dira? Nire asmoa ez zen ondo margotzea. Eskura nituen materialak eta baliabideak askatasunez erabiltzea izan zen nire helburu bakarra. Gehien jota, oso lagungarriak izan ziren filmak egiteko orduan [...] Bitxia bada ere, ondo margotzen saiatzen nintzanean, hala-holako lanak baino ez nituen egiten. Orain, ordea, nire helburu bakarra neure filmetarako ideien zirriborroa egitea denean, jendearentzat interesgarriak diren lanak sortu ditut.»

[James Goodwin, Akira Kurosawa and Intertextual Cinema, The Johns Hopkins University Press, Baltimore-Londres, 221. or.]

Kagemusha, gerlariaren itzala [Kagemusha], 1980. Akira Kurosawa © Toho/Kurosawa/The Kobal Collection/Contacto

Kagemusha, gerlariaren itzala [Kagemusha], 1980

Gidoia: Akira Kurosawa, Masato Ideren laguntzaz.

Zuzendaritza: Akira Kurosawa.

Argazkilaritza: Takao Saito, Ueda Masaharu, Asakazu Nakai, Kazuo Miyagawa. Musika: Shinichiro Ikebe. Muntaketa: Akira Kurosawa.

Koloretan. Iraupena: 159 minutu.

ekoizpena: Toho, Kurosawa Production, Twentieth Century Fox. Productores ejecutivos asociados: Francis Ford Coppola y George Lucas.

Ran

1985

Ran japonierako hitza da, eta anabasa, gerra, miseria edo anarkia esan nahi du. *Jidai-geki* hau [drama historikoa] Shakespeareren *Lear erregea* lanaren eta Moori Motonari jaunaren zein bere hiru gezien kondairaren bertsio librea da. Kondaira hori Erdi Aroko klan samurai baten historia da, eta, bertan, oinordekoek familia-boterea lortzeko borroka desleialari ekin zioten.

Kurosawak 1976. urtetik 1985. urtera arte lan egin zuen gidoi honetan. Hamarkada horretan, Japoniak bere «mirari ekonomiko» ahaltua bizi izan zuen, balio kultural tradizionalen kaltetan. *Kagemusha* eta *Ran* filmetako protagonisten heriotza Kurosawaren ezkortasun historikoaren beraren adierazgarri da, hain zuzen ere. Film horiek aldaketa sozial sakonen eraginpean dauden eszenatokietan garatzen dira, eta euren argudioek egoera dramatiko aparta eskaintzen diote zuzendariari, norberaren asmo handien eta testuinguru historikoaren handitasun tragikoaren arteko dialektikari buruz hausnartzeko.

Ran filmean, mendebaldeko dramaren eta Japoniako kulturaren beraren arteko uztarketa nabarmetzen da, eta, bertan, Kurosawak hain gustuko zeukan noh antzerkiko irudi soila erabili zuen, Shakespeareren elkarrizketa arinaren orde. *Storyboardean*, hain zuzen ere, gizakiak gerraren ondorioz sortutako anabasan hondoratzen direla iradokitzen duen ikonografia garatu zuen Kurosawak. Era berean, jantzien eta dekoratuen diseinua oso korapilotsua zenez, ia-ia hiru urte behar izan zituzten horiek guztiak egiteko. Bere marrazkietan, noh antzerkiko irudiak agertzen dira, eta estilo barroko batailen irudiek Théodore Géricault margolariaren konposizio kolorista zein dinamikoak dakarzkigute gogora.

Ran, 1985

Gidoia: Akira Kurosawa.

Zuzendaritza: Akira Kurosawa.

Argazkilaritza: Takao Saito, Masaharu Ueda, Asakazu Nakai. Musika: Toru Takemitsu. Jantziak: Emi Wada. Muntaketa: Akira Kurosawa.

Koloretan. Iraupena: 159 minutu.

ekoizpena: Serge Silberman Greenwich Film Production-entzat, Herald Ace, Nippon Herald Film, Masato Hara.

Ran filmeko jantziak

1985



Ran, 1985. Akira Kurosawa © 1985 Studio Canal, Paris/Herald Ace Inc.-Nippon Herald Films Inc., Tokio

Kagemusha bezala, *Ran* filma Azuchi Momoyama epealdian [1568-1603] dago girotuta. Garai horretan, Japonia berpiztu egin zen, eta Nobunaga jaunaren Azuchi gaztelutik datorkio izena. Epealdi horretan, Japonia kanpoko mundura ireki zen merkataritzaren bitartez, eta hirigune handiak garatu ziren. Bertan, hain zuzen ere, merkataritza-arloko gizarte-maila berria sortu zen, eta are sofistikatuagoa zen ikusizko estetika inposatu zuen, gerra feudalen eraginpeko aurreko epealdiko soiltasunaren aldean.

Jantziak egiteko, Kurosawak Emi Wada diseinugile japoniarra kontratatu zuen, eta, horretarako, zuzendariak noh eta kyogen antzezpenetako patroï dotore bezain finen arabera egin zituen marrazki xeheak erabili zituen. Pelikula hau filmatzeko, mila eta lauhun inguru jantzi egin behar izan zituzten, eta euren osagai batzuk prozedura tradizionalen arabera egin zituzten, ahalik eta egiazkotasun handiena lortzeko.

Erakusketan, Kyoami eta Lady Sué pertsonaien jantziak daude ikusgai. Kyoami Hidetora Ichimonji jaun handiaren bufoia da, eta bere jantziak oso nabarmenak dira. Horrez gain, sexuaren arloan, anbigua bezain umea da, gizontasun samuraiko eredu nabarien aldean. Lady Sué arzasunaren eta gerrako anabasaren ondorioz sortutako oinazearen onarpenaren adierazgarri da. Bere «Kimono arrosa» udaberriko apaingarriz beteta dago, eta, bertan, arrosa-kolorea zein argialdi budistako laranja-kolorea dira nagusi. Kurosawak, gainera, zenbait osagai margotu zituen eskuz.

Akira Kurosawaren ametsak

[*Yume*], 1990

Film honetako gidoian, zortzi amets agertzen dira: «Eguzkiak eurian zehar egiten du distira», «Asta-piperren baratzea», «Elurtea», «Tunela», «Erroiak», «Fuji mendia, gorri», «Deabru negartia», «Ur-erroten herrixka» eta «Hegada». Kurosawak ez zuen azken hori filmatu, ordea.

Laurogei urte zituela, bere biografiari buruz hausnartzen duen lehen filma zuzendu zuen Kurosawak. Nazioarteko kritikarien esanetan, film hau zuzendariaren film-testamentu handia da, bertako zortzi historiak bere bizitzako kezka moral, estetiko eta intelektual handien laburpena direlako: tradizio kulturalan bertan garatutako hezkuntza; naturaren errespetua; etika humanista; saihesteko moduko izugarrikeria den gerra; desberdintasun kulturalak gainditzeko moduko grina izpirituala den sorkuntza artistikoa; energia nuklearra erabiltzeagatiko ikara; gaitzaren indarren forma berriak; eta aurrerakuntzak mendebaldean daukan zentzuaren inguruko jarrera kritikoa.

Storyboard honetan, Kurosawak bete-betean darabil hain gustuko zituen pintura sinbolista, inpresionista, postinpresionista, fauvista, espressionista eta surrealistei buruzko jakintza sakona. Bosgarren pasartean, «Erroiak», Kurosawak Van Goghen omenaldi berezia egiten du, askoz lehengo margolari horrek berak ere oso-oso gogoko izan zituelako grabatu japoniarretako konposizioak, argia, kolorea eta estilo sintetikoa. Azken pasarteko marrazkiek, oster, Chagallen abentura surrealista dakarzkigute gogora.

Akira Kurosawaren ametsak [Yume], 1990

Gidoia: Akira Kurosawa.

Zuzendaritza: Akira Kurosawa.

Argazkilaritza: Takao Saito, Masaharu Ueda. Musika:

Shin'ichiro Ikebe, Ippolitov Ivanov. Jantziak: Emi Wada.

Muntaketa: Akira Kurosawa, Tome Minami, Noriko Neharu.

Koloretan. Iraupena: 117 minutu.

ekoizpena: Kurosawa Production, Amblin Entertainment [Steven Spielberg] eta Industrial Light and Magic [Lucas Company].

Abuztuko rapsodia

[*Hachigatsu no rapusodi*], 1991

Film honetako gidoia Kiyoko Murataren *Galdaran* eleberrian dago oinarrituta. Bertan, hain zuzen ere, familia bereko hiru belaunaldiren arteko harremanen erretratua egiten du Kurosawak. Familia horretan, gainera, aztarna tragikoa utzi du 1945. urtean Hiroshima zein Nagasakiko hirietan garatutako bonbardaketa atomikoak.

Bonbardaketaren oroitzapena aitzakiatzat hartzen du, Japoniako gizarte garaikideko gai garrantzitsuak jorrazteko: zahartzapena; familia-lotuneen ahulezia, betiko balioak galtzean; materialismoa; barkamena; oroimena; eta ekialdearen zein mendebaldearen arteko harremana.

Kurosawak ez zuen hondamendi nuklearra ikuskizun ikusgarria izango balitz bezala jorratu nahi, bere asmoa «isiltasun adierazkorreko» giroa irudikatzea zelako. Hori dela eta, film honetarako marrazkiak sinpletasun eta eskematismo handikoak dira. Eszenen errealismo intimista oso-oso gutxitan hausten da zenbait pasarte poetiko sinbolikoren ondorioz edo, Max Ernst edo Luis Buñuelen estilora, *collage* surrealistarako joera asaldagarriaren ondorioz, eztanda nuklearraren hondamendia gogoratzeko.

Abuztuko rapsodia [Hachigatsu no rapusodi], 1991

Gidoia: Akira Kurosawa.

Zuzendaritza: Akira Kurosawa.

Argazkilaritza: Takao Saito, Masaharu Ueda. Musika:

Shin'ichiro Ikebe [Schubert, Vivaldi]. Muntaketa: Akira Kurosawa.

Koloretan. Iraupena: 98 minutu.

ekoizpena: Kurosawa Production, Shochiku.

Itxaron apur batean

[*Madadayo*], 1993

Gerraosteko Tokion, erretiratuta dagoen irakasle baten antzinako ikasleak haren urtebetetzea ospatzeko elkartzen dira, eta erritual bitxia egiten dute. Festan bertan, haren hileta eszenaratzen dute, ezkutaketaren haur-joko ezagunaren bertsioa egiten duten bitartean. Horretarako, mundu honetatik alde egiteko prest dagoen galdetzen diote maisuari: «Prest zaude?» [*«Mahda-kai»*], baina irakasleak honako hauxe erantzuten die indar handiz: «Ez, oraindik ez» [*«Madadayo»*].

Gidoia eragin handiko Hyakken Uchida irakasle eta idazlearen zenbait lanetan dago oinarrituta. *Madadayo* pedagogiari eta *deshi-sensei* [ikasle-irakasle] harremanari buruzko filma da, eta Kurosawak askotan hausnartu zuen gai horri buruz. Film honetan, gainera, Kurosawak bere bizitzan zeresan handia eduki zuten irakasle guztiei egiten die omenaldia.

Storyboard honetarako, Kurosawak arreta handiz hautatu zuen giro trinko, itzaltsu eta espressionistaren ezaugarri bereizgarri diren argilunen aukera zabala. Bertan, gainera, kolore azidoak zein pintzelada zakarra dira nagusi. Bestetik, giro zapaltzaileak Kurosawak hain gustuko zituen John Forden filmak dakarzkigu gogora. Azken eszena luzean, irakasle protagonista amets egin bitartean hiltzen da, eta, eszena horren gainean, kredituak agertzen dira *collagea* izango balira bezala. Konposizioaren eta kolorearen tratamendu piktorikoa ikusgarria da benetan.

Itxaron apur batean [*Madadayo*], 1993

Gidoia: Akira Kurosawa. Zuzendaritza: Akira Kurosawa.
Argazkilaritza: Takao Saito, Masaharu Ueda. Musika:
Shin'ichiro Ikebe. Muntaketa: Akira Kurosawa.
Koloretan. Iraupena: 134 minutu.
Ekoizpena: Kurosawa Production, Daei, Dentsu.

Begira dugun itsasoa

[*Umi wa miteita*], 2002

Kurosawak film honetako gidoia idatzi eta 1993. urtearen inguruan egin zuen *storyboarda*, baina ekoizpena zenbait aldiz atzeratu behar izan zuten bere osasun-egoera txarraren ondorioz. Zuzendaria 1998an hil zen, eta, 2002. urtean, Kei Kumeik proiektua berreskuratu zuen. Gidoian zenbait aldaketa egin zituen arren, jatorrizko *storyboardeko* irudia eta giroa errespetatu zituen zehatz-mehatz.

Begira dugun itsasoa filmeko gidoia Shugoro Yamamotoen bi eleberritan dago oinarrituta. Samurai baten eta *geisha* baten arteko maitasun debekatuari buruzko historia da, eta XIX. mendean garatzen da Tokiotik hurbil, itsasoaren ondoan dagoen putetxe batean. Bertan, Kurosawak oso gogoko duen beste baliabide dramatiko bat berreskuratzen du: gizakien gatazkak konpontzen dituen hondamendi naturalarena.

Bere azken *storyboardean*, Kurosawak bakuntasun handiko marrazkiak eta erabateko preziosismoko beste batzuk tartekatzen ditu, Edo epealdiko [1603-1868] geishen etxe dotoreen xehe-tasunak zehatz-mehatz berreratzeko. Eszena in-timista batzuek, gainera, Matisseren konposizio ekialdearretako odaliskak dakarzkigute gogora.

Begira dugun itsasoa [*Umi wa miteita*], 2002

Gidoia: Akira Kurosawa, Kei Kumai. Zuzendaritza: Kei Kumai. Argazkilaritza: Kazuo Okuhara. Musika: Teizo Matsu-mara. Muntaketa: Osamu Inoue.
Koloretan. Iraupena: 114 minutu.
Ekoizpena: Umi Wa Miteita Production Committee

Pintura zinean eta Akira Kurosawaren storyboardak

Aldibereko hiru emanaldiko ikus-entzunezko instalazioa da, eta 1950ean egin zuen *Eskandalua* filma hartzen du erreferentziatzat, Akira Kurosawak bere zinetik bertatik pinturarekin zeukan harremana azaltzeko.

Filmeko protagonista mendebaldeko estiloko margolari gazte modernoa da, eta atsekabetuta dago, prentsa japoniarrak Maurice de Vlaminck-arekin erkatzen duelako bere estiloa. Fikziozko margolari horrek Ichiro Aoye du izena [zuzendariren beraren alter egoa da, eta Toshiro Mifune da aktore nagusia]. Izan ere, bere estiloaren bila dabil, testuinguru sozialaren aurrean osotasun artistiko zorrotzari nola eutsi behar zaion hausnartzen duen bitartean eta, Europako ereduen imitazio hutsean oinarritutako pedagogia artistikoaren zentzugabekeriari aurre egiteko, mendebaldeko artearen nahiz kultura japoniarraren arteko harreman berriak sortu behar direla azaltzen duen bitartean.

Eskandalua [Shubun], 1950

Gidoia: Akira Kurosawa, Ryuzo Kikushima.

Argazkilaritza: Toshio Ubukata. Musika: Fumio Hayasaka.


Muntaketa: Akira Kurosawa.

Iraupena: 104 minutu. Zuri-beltzean.

ekoizpena: Sochiku, Eiga Geijutsu Kyokai.

Akira Kurosawaren zinegintza gaur egungo zinean eta ikus-entzunezkoetan

Aldibereko hiru emanaldiko ikus-entzunezko instalazioa erakusketako epilogo da, eta erreferente kulturalen joko ia ixten du. Akira Kurosawak zinea *testu filmikotzat* hartzean daukan kontzepzioari buruzko joko ia –eta hausnarketa– da, omenaldien, egokitzapenen, aipamenen eta *remakeen* bidez Kurosawaren lanek izan duten eraginaren adierazgarri: bere *testu filmikoak* oihartzuna izan du bere zinematografiaren osteko ikus-entzunezko beste lan askotan.



- 1 Dokumentazio gunea
- 2 Storyboard-ak
- 3 *Kagemusha*, gerlariaren itzala
- 4 *Itxaron apur batean*
- 5 *Begira dugun itsasoa*
- 6 Margo lanak Akira Kurosawaren zineman: *Eskandalua*
- 7 *Ran*
- 8 *Ran* filmeko jantziak
- 9 *Abuztuko rapsodia*
- 10 Akira Kurosawaren ametsak
- 11 Filmagintza eta kartelak
- 12 Akira Kurosawaren filmografia-eraginak garaiko zineman eta ikus-entzunezkoetan

KATALOGOA

Samuraiaren begirada: Akira Kurosawaren marrazkiak

Espezialista nazional nahiz nazioarteko aditu ospetsuen saiakera kritikoak, Akira Kurosawaren marrazkiak, bere pelikuletako fotogramak, filmatzeetan erabilitako arropak, bere zinematografiako horma-irudiak... ikuspegi berri eta nahitaezkoa, Japoniako zinearen «Enperadorearen» lanari buruz. Gaztelaniaz, euskaraz eta ingelesez.

Salgai AlhóndigaBilbaoko Shopa dendan.

PREZIOA: 30€

AZAROAREN 16tik URTARRILAREN 30era
ERAKUSKETA

Samuraiaren begirada: Akira Kurosawaren marrazkiak

Inaugurazioa: 19:30etan

2010eko AZAROAREN 17a, ASTEAZKENA

19:30etan

MAHAI-INGURUA

Akira Kurosawaren gaurkotasuna

PATXI URKIJO, ANDRÉS EXPÓSITO, CARLOS GIMÉNEZ SORIA,
JORDI PUIGDOMÈNECH

2010eko AZAROAREN 18a, OSTEKUNA

20:00etan

ZINE-ZIKLOA

A.K. [1985]. Chris Marker

2010eko AZAROAREN 25a, OSTEKUNA

17:30etik 18:30era

IKASTAROA

Kultura japoniarra umeentzat

ASUKA KUBOTA

2010eko ABENDUAREN 2a, OSTEKUNA

19:30etan

HITZALDIA

Japonia eta Akira Kurosawaren filmografia

ISABEL COIXET

2010eko ABENDUAREN 9a, OSTEKUNA

20:00etan

ZINE-ZIKLOA

Kagemusha, gerlariaren itzala [1980]. Akira Kurosawa

2010eko ABENDUAREN 16a, OSTEKUNA

20:00etan

ZINE-ZIKLOA

Ghost Dog. Samuraiaren bidea [1999]. Jim Jarmusch

2011ko URTARRILAREN 13a, OSTEKUNA

20:00etan

ZINE-ZIKLOA

Porco Rosso [1992]. Hayao Miyazaki

2011ko URTARRILAREN 13a, OSTEKUNA

2011ko URTARRILAREN 14a, OSTIRALA

17:30etik 20:00etara

2011ko URTARRILAREN 15a, LARUNBATA

10:30etik 13:30era

TAILERRA

Akira Kurosawaren storyboardak: manga eta anime garaikidea

LAURA MONTERO

2011ko URTARRILAREN 20a, OSTEKUNA

20:00ETAN

ZINE-ZIKLOA

Eskandalua [1950]. Akira Kurosawa

2011ko URTARRILAREN 30a, IGANDEA

20:00ETAN

ZINE-ZIKLOA

Akira Kurosawaren ametsak [1990]. Akira Kurosawa